

Elkartasun-senean hezteko esku-hartze  
pedagogikoko proposamena

---

# Mundua eskolan Eskola munduan

---

Irakasleen prestakuntzarako eta ikasleekin Tutoretzan  
edo Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta  
DBHko Gizarte-Zientzietako irakasgaiari egin  
beharreko lanerako modulu didaktikoa

---

## 2. koadernoia

---

Esparru teorikoa  
(Irakasleentzako agiria)



---

## “Aukeratzeko ahalmena”

---

Bigarren koaderno honetan eskaintzen den esparru teorikoa hiru ataletan egituratuta dago: oinarri konzeptualak, planteamendu pedagogikoa eta estrategia didaktikoak. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala gehitzen da eranskin gisa.

Koaderno honen edukia neurri handi batean bat dator 2017ko ekainaren 29an aurkeztutako “Giza eskubideen, bizikidetzaren eta lankidetzaren Hezkuntza-programa Osagarria (2017-2020)” izenburuko dokumentuarekin. Erreferentziazko dokumentu horrek zeharkatu egiten ditu Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak hezkuntzaren esparruan sustatzen edo bultzatzen dituen programa guztiak.

Jatorrizko dokumentu haren azpi-izenburua “Aukeratzeko ahalmena” izan zen. Kasu honetan, elkartasuna aukeratu ahal izatea dugu hizpide. Aukeratu ahal dugun gaitasun bat da elkartasuna. Hezkuntza-modulu honetan, hain zuzen ere, esku-hartze pedagogikoko proposamen bat biltzen da, elkartasun sena arakatzea xede duena, hori gure hautuen sortaren zati den aukeretako bat den aldetik. Aukera horrek munduan du eragina, eta gure errealitatek hurbilenean ere bai.

---

# 1. Oinarri kontzeptualak

Oinarri kontzeptualetan funtsezko hezkuntza-educia duten bi binomio eta helburu nagusi bat daude.

## 1.1. Funtsezko hezkuntza-educia duten bi binomio

*Binomio* hitzaren esanahi baten arabera, *bi elementuren multzoa da, eta elementuok orekatuta edo bata bestearen mende daude*. Programan, hezkuntza-educi garrantzitsua duten bi binomio baliatuko ditugu. Binomio horietan, bi kontzeptu oreka- eta mendekotasun-harremanean jartzen dira: alde bate-tik, pertsonen duintasuna eta giza eskubideak; eta, bestetik, enpatia eta elkartasuna. Kontzeptu horien educiak funtsezkoak dira, eta bizikidetzarako hezkuntza-proiektuaren oinarriak osatzen dituzte.

### 1.1.1. Binomioa: pertsonen duintasuna eta giza eskubideak

Giza eskubideen, bizikidetzaren eta lankidetzaren proiektu globalean, hezkuntza funtsezko balio estrategikoa da. Pertsonaren duintasuna ulertzean, bizitzean, errespetatzean, sustatzean eta defendatzean oinarrituta dagoen hezkuntza-arloko proiektu baten lehentasuna berrestea da premisa hori formulatzeko modu bat.

Pertsonen duintasunak esan nahi du pertsona bakoitza berezia dela, baliabide baten orde-z xede bat delako. Xede bat da nork bere garapen osoa izateko aukera baliatu ahal duelako, bere kontzientziari jarraituz eta horretarako eskubidea baliatuta. Pertsonen duintasunaren ikusmolde horrek, hain zuzen ere, pertsona guztien oinarriko eskubideak errespetatzea eskatzen du.

Pertsonen duintasunak esan nahi du pertsona bakoitza gehiago dela beraren edozein murriztapen baino; berari atxiki dakiokkeen edozein etiketa baino gehiago; eta berari lotutako edozein inguruabar, emozio edo arazo baino gehiago. Hezkuntzaren ikuspegitik, pertsonen duintasuna, kontzeptu bat ez ezik, bizipena ere bada. Norberak bizi ahal du esperientzia hori, nor bere esanahiaz eta bere irismen unibertsalaz jabetzeko.

Pertsonen duintasuna gizakiok historian egin dugun eraikuntza garrantzitsuenetako bat da, garrantzitsuena ez bada. Hori dela-eta, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko lehen oinarria da pertsonen duintasuna, eta sarreraren lehen paragrafoan zein lehen artikuluan dago jasota: "Gizaki guztiak jaiotzen dira aske eta berdin duintasunari dagokionez...". Pertsona guztiek dute duintasuna. Eta espermentatu, errespetatu eta sustatu behar da.

Giza eskubideak pertsonen duintasunaren esanahian oinarritzen dira. Edozein diskriminaziotan etniari, erlijioari, politikari, generoari, gizarteari edo jatorriari lotutako etiketa bat jartzen da pertsonen duintasunaren gainetik. Etiketan, arrazoimenaren eta gizatasunaren gainetik jartzen dira aurreiritzia, ezjakintasuna eta oldarkortasuna.

Giza eskubideen eta bizikidetzaren arloko hezkuntzaren oinarriko ideia erraza da: edozein pertsonaren etiketa etnikoa, erlijiosoa edo politikoa baino askoz ere garrantzitsuagoa da pertsona horren duintasuna. Hori dela eta, pertsona horrek berdintasunean eta justizian oinarritutako tratua merezi du, eta hori adierazten da funtsezko eskubideetan.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala premisa horren azalpen arautua da, eta 30 artikulutan adierazita dago. Munduaren historian nazioek eta herriek lortu duten akordiorik garrantzitsuena da. Hezkuntzaren ikuspegitik, lehentasun handiena eman behar zaio. Justizia, bakea, askatasuna eta bizikidetzaren neurri handi batean gobernuen eta pertsona guztien konpromisoaren, errespetuaren eta giza eskubideen defentsaren eta sustapenaren mende daude. *Duintasuna eta giza eskubideak* binomioaren educia hezkuntzari lotuta dago, ezinbestean.

### 1.1.2. Binomioa: enpatia eta elkartasuna

Gizakiok enpatikoak izateko gaitasuna daukagu. Gaitasun horrek elkartasunez jokatzeko aukera ematen digu. Elkartasuna aukerazko eta borondatezko erabakia da. Enpatikoa izateko gaitasuna eta elkartasunarekiko konpromisoa pertsonen ezaugarri espezifikoak eta unibertsalak dira. Are gehiago, gizakiok enpatia eta elkartasuna bereizgarri ditugula esan daiteke.

Enpatia beste pertsona baten lekuan jartzeko eta beste pertsona hori zaintzeko eta beraren egoera zailaz, justiziarik ezaz edo sufrimenduaz kezkatzeko gaitasuna da. Beste pertsona baten sufrimen-

duaz kezkatzeko gaitasuna dugunean, eta horrek zerbait egitera behartzen gaituenean, enpatia elkartasun bihurtzen da.

Pertsonen duintasuna bezala, enpatia ere kontzeptu bat da, eta ikasi ahal da. Baina, horrez gain, bada norberak bizi ahal duen esperientzia bat, berak unibertsoan duen irismena ulertzeko. Guk beste pertsona batzuen beharra sentitzen dugunean, enpatiaren beste aldea bizi dezakegu. Hurko batek jasaten duen justiziarik ezaren mina sentitzen dugunean ere esperimenta dezakegu.

Enpatia kulturari, hezkuntzari eta hedapenari lotutako balio handiko kontzeptua da, eta bizikidetzaren, giza eskubideen eta elkartasunaren arloko proiektu ororen oinarrian dugu. Izan ere, bestea eta besteak kontuan hartzen dituen bizikidetzakultura horrexek definitzen ditu enpatiaren aldeko hautuak. Bere baitako ate-leihoak kanpora zabalik dituen eta barruan zein kanpoan elkartasuna erakusteko gaitasuna duen gizarte definitzen du.

Enpatikoak izateko gaitasuna handiagoa da, baldin eta hezkuntzan sentsibilitatea eta beste pertsona batzuei hurbiltzen ikasi badugu, pertsona horiek urrun edo hurbil egonda ere. Enpatikoak izateko eta elkartasuna adierazteko gaitasunak zibilizatzen gaitu. Enpatiarik eta elkartasunik gabe, mundua norberekoikeriaren bultzaden mende egongo litzateke.

Eremu globalean edo gure herrian bertan, familian edo munduan bizikidetzak bidezkoagoa lortzeko behar den oinarritzko oreka lortuko bada, pertsonak, erakundeak eta herrialdeak beren baitako ate-leihoak zabaldu, eta barneko zein kanpoko elkartasuna adierazteko gai izan behar dute; horixe da, hain zuzen, pertsonen, erakundeen eta herrialdeen gainean behar dugun kontzepzio politikoa. *Enpatia eta elkartasuna* binomioan funtsezkoa da hezkuntza-arloko edukia, mundua ulertzeko eta errealitatea hobetzen eta eraldatzen laguntzeko.

## 1.2. Hezkuntza-arloko helburu nagusia

Justiziarik eta berdintasunik eza, diskriminazioa, indarkeria eta biktimen aurreko axolagabetasuna ez dira soilik zoritxarraren ondorioak. Bidegabeko egiturak eta egoera horiei emandako erantzunak, neurri handi batean, pertsonen arrazoibideen eta erabakien bidez eraikitzen dira. Guztiok egiten ditugun eta norberak egiten dituen erabakiak dira. Erabakiak ondo jabetuta edo ondo jabetu gabe har ditzakegu.

Eta, gauzak zer diren, pasibotasunean edo bidegabeko zein berdintasunik gabeko errealitateetan parte hartzeko justifikazio ohikoena hauxe izaten da: *“ez neukan beste aukerarik”*, edo *“ez zegoen beste aukerarik”*. Baina justiziarekin, berdintasunarekin, giza eskubideekin eta edozein indarkeria edo diskriminazio motaren biktimekin konpromisoa hartzeko oinarria hauxe da, hain zuzen ere: *“aukeratu ahal dugu”*, *“badago beste aukera bat”*.

Gizakiok aukeratzeko ahalmena daukagu: gutako bakoitzak. Ahalmen hori pertsonen gaitasun bene-takoena, bereziena eta unibertsalena da. Pertsona guztiok duintasuna daukagu, eta enpatia eta elkartasuna adierazi ahal dugu, kontzienteki (zinez) aukeratu ahal dugulako. Axolagabetasunaren, norberekoikeriaren eta justiziarik ezaren alde egin dezakegu, edo sentsibilitatearen, enpatiaren eta elkartasunaren alde. Hezkuntzaren ikuspegitik, horixe da tentsio neuralgikoa.

Aukera mota horiek gure esku daude, gure bizitzako edozein inguruabarretan. Zoritxarrak, inertiak edo ezintasunak ez dute den-dena hartzen. Gure kontzientziak aukeratzeko gaitasuna eta ahalmena ematen dizkigu. Hezkuntzaren ikuspegitik dagoen puntu neuralgikoa lotuta dago gure kontzientziaz jabetzeko garapenarekin. Hortaz, funtsezkoa da ikuspegi horri heltzea eta gaitasun horiek bereganatzeko lana egitea.

Aukeratzeko ahalmena pertsonari sentiaraztea eta ulertaraztea hezkuntzako proiektuaren ardatz nagusia da, baita helburu nagusia ere. Giza eskubideen, bizikidetzaren eta lankidetzaren hezkuntza sustatuko badugu, aukeratzeko ahalmenaz jabetu beharko dugu. Kontzienteki aukeratzeko boterea dugu, gure bizitzaren edozein unetan eta inguruabarretan. Aukera bakoitzean mundu bidezkoagoa eta bizigarriagoa marrazten ari gara une oro; edo, kontrakoa, justiziarik gabeko mundu zakarragoa.

Pertsona bakoitzak, jakitun izan zein ez, aukeratzeko gaitasuna dauka. Norbera gaitasun horretaz jabetzen denean, gaitasun hori bere egiten duenean eta sentitu egiten duenean, aske da aukeratu ahal izateko. Aitzitik, ezin izango du alegatu jabetasunik edo ezagutzarik eza. Hezkuntzaren arloa horixe da, hain zuzen ere: norberari bere gaitasunak eta ezagutzak erakustea. Lege bidez aukerak ezartzen dira, baina, hezkuntzak ezin du aukerarik ezarri. Hezkuntzak ikuspegi kritikotik jokatzeko eta jokatu aurretik behar diren baliabideak iradoki eta, batez ere, eskaini ahal ditu.

---

Giza eskubideen defentsa eta elkartasuna uztartzen dituen eta desberdintasunik eta justiziarik ezaren kontra egiten duen hezkuntza-proiektu bat sortzen bada, honako puntu hau ardatz nagusitzat hartu beharko du. Nor bere kontzientziaz jabetzea sustatzea eta pertsonak aukeratzeko gai direla azpimarratzea. Horixe da helburu nagusia. Aukeratzeko gaitasuna dugu. Kontzienteki aukera dezakegu. Elkartasuna ere aukera dezakegu. Pertsonok elkartasuna aukera dezakegu; hor dago gaiaren muina. Azken finean, erabaki bat da.

## 2. Planteamendu pedagogikoa: kontrabalioak eta balioak

Oinarri kontzeptual batzuek gain, planteamendu pedagogiko bat ere behar da. Ikuspegi horren inspirazio-iturria Gizalegez akordioaren edukia izango da. Akordio hori diagnosi batean eta proposamen pedagogiko batean oinarrituta dago. Diagnostika eta proposamena lagungarriak dira funtsezko hezkuntza-edukia duten binomioak eta hezkuntza-ardatz nagusia garatzeko (aurreko puntuan azalduta daude).

### 2.1. Hezkuntzaren kontrabalioen diagnostikoa

Bizikidetza hausten duten kausa nagusiak dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa edo sektarismoa dira, giza kontzientzietan garaile direnean. Horrexek elikatzen du justiziarik eta elkartasunik eza bultzatzeko eta justifikatzeko ideologia. Lau paradigma horiek gizartearen kulturen eta norberaren pentsamoldean txertatuta egon daitezke, diskrezioz.

Laurek daukate ezaugarri komun bat: inposizioa, indarkeria, giza eskubideen urraketa eta bidegabekeriarekiko, desberdintasunarekiko eta diskriminazioarekiko sentiberatasun falta normalizatu egiten dituztela. Nork bere aukera egiteko gaitasun kritikoa distortsionatu edo deuseztatzen dute. Faktore horiek hezkuntzaren kontrako eragin handiko balioak dira.

- **Dogmatismoa.** Norbera guztiz zuzen dagoela eta egia osoaren jabe dela pentsatzea dakar. Dogmatismoa norberaren mugen kontzientzia behar bezalakoa ez izatearen ondorioz sortzen eta hazten da. Gizakion ahalmena eta gaitasuna indargabetzen ditu, nork bere buruarekin kritiko jokatzeko eta jokaera zuzentzeko gaitasuna deuseztatzen duelako. Elkartasunaren aukera deuseztatzen du, diferenteak diren pertsonak deshumanizatzen dituelako. Pertsona horiengan etiketak ikusten ditugu, besterik ez.

- **Fatalismoa.** Funtsean, biktimaren rola hartzen da. Horren eraginez, pasibotasuna, konformismoa edo sentikortasunik eza aukera bakartzat hartzen dira. Zailtasunen erdian dauden aukerak identifikatzeko ezintasuna du oinarrian. Aukeratzeko gaitasuna murrizten du, aukeren sorta deuseztatzen duelako. Elkartasunaren balioa erdeinatzen eta mesprezatzen du, “ezerk ere ez du deus merezi” esaldia zuritzen duelako. Pasibotasunaren etsipena elikatzen du.

- **Manikeismoa.** Arazoak muturreko dikotomia bihurtzen ditu; hortaz, nork bere aukera egiteko eta ñabardurak kontuan hartzeko erantzukizuna eragozten du: “*berekoia izan ala besteren mendean egon*”, “*inor zapaltzea ala bestek zu zapaltzea*”, “*inor esplotatzea ala bestek zu esplotatzea*”, “*inori lapurtzea ala bestek zuri lapurtzea*”, “*inor hiltzea ala bestek zu hiltzea*”... Manikeismoa kontzientzia etikoaren sakontasun ahuleko egoeretan zabaltzen da. Aukeratzeko ahalmena bitan banatutako errealitate batera murrizten du; errealitate horretan, giza eskubideekin eta elkartasunarekin kontzienteki hartutako konpromiso pertsonala hautuetatik kanpo geratzen da.

- **Sektarismoa.** Giza eskubideei eta giza elkartasunari baino balio handiagoa ematen zaio ideia bati; taldea ideia horri atxikitzen zaio, eta kolektiboki defendatzen du. Giza duintasunaren balio gorenaren behar bezala barneratuta ez edukitzean oinarritzen da. Kontzienteki aukeratzeko gaitasuna *a priori* ideologiko baten mende jartzen du. Esparru horretan, elkartasuna ez da sekula gauzarik garrantzitsuena. Taldearen hautu ideologikoaren aldean hutsaren hurrengo balioa dauka.

Lau paradigma horiek murriztu edo guztiz deuseztatzen dute kontzienteki aukeratzeko gaitasuna. Bizikidetza hausten dute, etikoak ez diren baliabideen erabilera bidezkotzat jotzen dutelako; justiziarik eza, desberdintasuna, indarkeria onartzea zuritzen dute, “*beste aukerarik ez dagoelako*”, “*beste batzuek egiten dutena okerragoa delako*”, eta, horren aurrean, “*dena zilegi dela*” aldarrikatzen dutelako. Labur esanda, aurkaria edo desberdina dena “*etsai*” irudikatzen dute, besterik kontuan hartu gabe. Enpatia pertsonalizatzearen eta elkartasuna hautatzearen bidea mozten dute.

Hezkuntzaren ikuspuntutik, batetik, aukeratzeko gaitasuna nork bere buruan sentitzea eta, bestetik, edozein diskriminaziori –politikoa, sektarioa, klasista, arrazista, sexista, etnia artekoa zein erlijio artekoa izan– aurrea hartzea zuzenean dago lotuta bizikidetzaren hausten duten lau paradigma horiei ematen zaien erantzunarekin.

## 2.2. Hezkuntza-balioei buruzko proposamen pedagogikoa

Guztiok gara gizartearen eta hezkuntzaren arloko eragileak. Hurrengo lau puntuetan hezkuntza-erantzuna ematen zaie aurreko atalean azaldu ditugun lau kontrabalioei. Gizalegez akordioaren edukia sakontzen dute, eta lau puntuak lagungarriak dira nork bere aukera egiteko gaitasunaz jabetzen ikasteko. Hortaz, pertsonen errealitate eta gaitasun egiazkoenak garatzeko lagungarriak dira. Ez dute ezer berririk erakutsiko, norberak duena baizik.

- **Mugen pedagogia.** Bizikidetzaren zera da, gure ikuspegia beti osatu gabea dela eta gizaki guztiok une batean edo bestean beste pertsona batzuen laguntza behar dugula onartzea.

Gizaki guzti-guztiak mugatuak garenaz jabetzea esan nahi du eta, hain justu horregatik, ez dugu arrazoi osoa, ezin dugu dena egin eta ezin gara egia osoaren jabe izan. Hezkuntzaren ikuspuntutik, errealitatearen ezinbesteko manu hori ulertuko badugu, gizakion mugak onartzeko heziketa-erperientzia bultzatu behar da. Bizipen hezigarri horrek aurrea hartzen dio dogmatismoari, elkarrizketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu, eta gainerako pertsonen beharra eta lankidetzaren ulertarazten ditu. Nork bere mugak ulertzen dituenean, aukeratzeko ahalmena sortzen da; horregatik laguntzen du bizipen horrek.

- **Balio positiboaren pedagogia.** Bizikidetzaren zera da, zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea eta gizakien arteko lankidetzaren beti gure prestasunaren alternatiba dela ulertzea.

Hori ikasteko, ezinbestekoa da balio positiboak ematen duen bizipen hezigarria sustatzea eta pertsona guztien eskura dagoela azpimarratzea. Bizipen horri esker konturatzen gara etsipena, justiziarik eza edo desberdintasuna onartzea edo etikoak ez diren baliabideetara jotzea baino aukera hobekak ditugula. Balio positiboaren heziketak fatalismoa eragozten du eta aniztasuna sustatzen du. Elkartasuna aukeratzeko ahalmena garatzen laguntzen du, etsipena aukera bakarra ez dela argitzen duelako, eta aukeren sorta hedatzen duelako.

- **Kontzientzia etikoaren pedagogia.** Bizikidetzaren zera da, egoera bakoitzean gure erantzukizun etikoa geure gain hartzea eta enpatiarako dugun gaitasuna garatzen ikastea.

Horrek berekin dakar norberaren kontzientzia etikoan sakontzeko heziketa-erperientzia sustatzea. Ez gara dogmatismo, amorru, oldarkortasun, beldur eta norberekoikeria bulkada hutsak; aitzitik, hori baino gehiago gara, arrazoibideak baititugu eta zentzu etikoz hautatzeko gauza baikara. Kontzientzia etikoaren heziketa-erperientziak manikeismoa eragozten du eta elkartasuna sustatzen du. Aukeratzeko ahalmena garatzen laguntzen du; izan ere, guztiok daukagun empatia-gaitasuna garatzeko behar den sentsibilitatea eta elkartasuneko konpromisoak berez dakartzan hauetuek lantzen ditu.

- **Giza duintasunaren pedagogia.** Bizikidetzaren zera da, giza duintasunaren errespetuaren eta giza duintasunak eta elkartasunak duten harremanaren goi-mailako balioa ulertzea.

Pertsonen duintasunaren eta giza eskubideen bizipen hezigarria sustatu behar da, baina, lehenik eta behin, nork bere buruan bizi behar du. Gizaki guztiek merezi dute begirunea, eta guztiek dituzte eskubideak. Edozein etiketa edo norbanakoaren murrizketa baino gehiago dira pertsonak. Kontzientzia hori erabakigarria da bizikidetzaren zibilizatu lortzeko. Giza duintasunaren erperientzia hezigarriak indarkeriara jotzeari aurrea hartzen dio eta elkartasuna nahiz giza eskubideen errespetua sustatzen ditu. Erabakiak gidatzeko erreferentzia nagusia ematen du; hortaz, aukeratzeko ahalmena garatzen laguntzen du.

Ikuspegi estrategikotik begiratuta, eta etorkizunean gizarte integratu bat lortzeko, beharrezkoa da bakearen eta bizikidetzaren aldeko kultura sustatzea, aipatu berri ditugun balioen tankerakoak lantzen dituen pedagogia unibertetsala barnean hartzen duten gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektuen bitartez.

Sexismoaren, xenofobiaren, arrazismoaren, desberdintasunaren, elkartasunik ezaren edo indarkeriaren edozein motari aurre egiteko erantzuna bizikidetzaren balioetan oinarritutako hezkuntza da. Hezkuntza hori mezu batean laburbiltzen da: ez dago ezer pertsonen duintasuna baino garrantzitsuagoa denik. Gizakiok duintasuna daukagu, kontzientzia daukagulako. Eta, kontzientzia daukagunez, kontzienteki aukera dezakegu. Kontzienteki aukeratzeko gaitasuna dugu, elkartasunaren alde egin dezakegulako.

---

### 3. Funtsezko estrategia didaktikoak

Giza eskubideen, bizikidetzaren eta lankidetzaren hezkuntzan kontzeptuak eta edukiak ikastea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean 30 artikulua jasota daude. Artikuluak ikastea, hau da, ezagutzea eta ulertzea, ezinbestekoa da, baina hori ez da dena.

Ezagutza teoriko horiekin batera, bizipena behar da. Pertsonen duintasuna, giza eskubideak, enpatia, elkartasuna, aukeratzeko ahalmena... kontzeptuak ez ezik, bizipenak ere badira: norberak bizi eta sentitzen dituenean, kontzeptu horien benetako irismena ulertzen du.

Aurreko puntuan lau balio pedagogiko azaldu dira, ildo horretatik jarraitzeko. Balio horietan guztietan azpimarratzen da norberak izandako bizipena gako dela ikaskuntzan: gure mugak onartu behar ditugu, balio positiboa aurkitzeko gaitasunaz ohartu, gure kontzientzia ezagutu eta pertsonen duintasuna gure benetako errealitatean ulertu.

Zehatz-mehatz, bizipenetatik ikasteko apustu horretan eta geroago azalduko ditugun proiektuetan tresna zehatz hauek hedatu eta proposatuko dira:

- **Lekukotasunak entzuteko esperientzia.** Lehenik eta behin, lekukotasunak entzunez ikasteko aukera baliatuko da. Frogatuta dago lekukotasunen eragina benetakoa eta sakona dela. Lehen eskuko lekukotasunez ari gara, lehen pertsonan kontatuta; hau da, errepikatu behar ez diren esperientzien lekukotasun zuzenak, edo eredu gisa zabaldu behar diren esperientzien lekukotasun zuzenak.

- **Ikus-entzunezko elkarreaginaren bizipena.** Bigarrenik, ikus-entzunezko baliabideak –film dokumentalak, fikzio-filmak edo beste euskarri batekoak. Giza eskubideei lotutako emozioak eta esperientziak partekatzeko eta lehen pertsonan sentitzeko aukera ematen digute. Horretarako, ikusleak eszena horietako protagonista bihurtzeko elkarrekintza sustatu behar da.

- **Mundua beste ikuspuntu batetik ikusteko bizipena.** Hirugarrenik, hauxe da frogatuta dagoen beste tresna didaktiko bat: gure konfort-eremutik ateratzen gaituzten hainbat errealitatekin harremanetan jartzea. Gure errealitateaz bestelakoak diren eta giza eskubideei lotuta dauden errealitate batzuk zuzenean ezagutzean edo fisikoki bisitatzean datza.

Modulu didaktiko honetako zeharkako estrategia hauxe da: giza eskubideen, bizikidetzaren eta lankidetzaren hezkuntza bizipenaren bidez sustatzea. Lehen pertsonan izandako bizipen partekatua da. Didaktika horrek ez ditu gainerakoak baztertzen, osatu egiten ditu. Hala eta guztiz ere, bizipenen bidezko didaktika nagusi da programa honetan eta lotutako proiektuetan.



## Esparru teorikoa

1. Oinarri kontzeptualak	1.1. Funtsezko hezkuntza-educia duten bi binomio	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Pertsonen duintasuna eta giza eskubideak.</li> <li>· Enpatia eta elkartasuna.</li> </ul>
	1.2. Hezkuntza-arloko helburu nagusia	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Aukeratzeko ahalmena pertsoneri sentiaraztea.</li> </ul>
2. Planteamendu pedagogikoa: kontrabaliok eta balioak	2.1. Hezkuntza-arloko kontrabaliok, diagnostiko bat	<ul style="list-style-type: none"> <li>· <b>Dogmatismoa.</b></li> <li>· <b>Fatalismoa.</b></li> <li>· <b>Manikeismoa.</b></li> <li>· <b>Sektarismoa.</b></li> </ul>
	2.2. Hezkuntza-arloko balioak, proposamen pedagogikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>· <b>Mugen pedagogia.</b> Bizikidetzaz zera da, gure ikuspegia beti osatu gabea dela eta gizaki guztiok une batean edo bestean beste pertsona batzuen laguntza behar dugula onartzea.</li> <li>· <b>Balio positiboaren pedagogia.</b> Bizikidetzaz zera da, zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea eta gizakiaren arteko lankidetzaz beti gure prestasunaren alternatiba dela ulertzea.</li> <li>· <b>Kontzientzia etikoaren pedagogia.</b> Bizikidetzaz zera da, egoera bakoitzean gure erantzukizun etikoa geure gain hartzea eta enpatiarako dugun gaitasuna garatzen ikastea.</li> <li>· <b>Giza duintasunaren pedagogia.</b> Bizikidetzaz zera da, giza duintasunaren errespetuaren eta giza duintasunak eta elkartasunak duten harremanaren goi-mailako balioa ulertzea.</li> </ul>
3. Funtsezko estrategia didaktikoak	3.1. Bizipenen bidez ikastea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lekukotasunaren bizipena.</li> <li>- Ikus-entzunezko elkarreraginaren bizipena.</li> <li>- Mundua beste ikuspuntu batetik ikusteko bizipena.</li> </ul>

---

# Eranskina.

## Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

### Hitzaurrea

Kontuan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdin eta ukaezinetan oinarritzen direla.

Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxiestearen ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak gertatu izan direla; eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia orotik aske, hitz egiteko askatasuna eta sinesmen-askatasuna izango dituzten munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren helburu nagusi.

Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakia-tirania eta zapalkuntzaren aurkako azken irtenbidea den matxinadara jo beharrean aurkitu ez dadin.

Kontuan izanik ezinbestekoa dela, baita ere, herrialdeen artean harreman lagunkoiak bultzatzea.

Kontuan izanik Nazio Batuetako kide diren herriek gizakiaren oinarritzko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dutela Agirian; eta, askatasunaren ikuspegi zabalago baten barruan, gizarte aurrerakuntza sustatzeko eta bizitza-maila jasotzeko erabakita daudela adierazi dutela.

Kontuan izanik Estatu Kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarritzko eskubide eta askatasunen begirune orokorra eta eraginkorra ziurtatzeko hitza eman dutela.

Kontuan izanik emandako hitz hori osotasunean betetzeko garrantzi handikoa dela eskubide eta askatasun horiek berdin ulertzea.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsal hau egiten du, Herri eta nazio guztiek izan beharreko jomuga legez, bai norbanakoek eta bai erakundeek. Aldarrikapen honetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun hauen begirunea bultzatzen dezaten irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez eta, bestetik, nazio mailan eta nazioarte mailan arian-arian neurriak hartuz, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezkeen ziurtatzeko, bai elkarkide diren estatuetakoa herrien artean eta baita horien eskumenpean dauden lurraldeetan ere.

#### 1. atala

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.

#### 2. atala

Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.

Ez zaio begiratu gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nolahalako burujabetasun-mugak dituen.

#### 3. atala

Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

#### 4. atala

Inor ez da izango besteren esklabu edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklabuen salerosketa oro.

#### 5. atala

Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratatu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

#### 6. atala

Edozein gizon-emakume du, nonahi, lege-nortasundun dela aitortu diezaizoten eskubidea.

#### 7. atala

Gizon-emakume guztiak berdina dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babesa izateko eskubidea. Denek dute Aldarrikapen hau hausten duen edozein bereizkeriaren aurka eta bereizkeria horren eragileen aurka babes berbera izateko eskubidea.

#### **8. atala**

Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarritzko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurtsio eragin-korra jartzeko eskubidea.

#### **9. atala**

Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

#### **10. atala**

Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikierarik gabean jendaurrean hitz egin eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubide eta betebeharrak erabakitzeko, nahiz bere aurkako salaketa penalak aztertzeko.

#### **11. atala**

Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean. Epaiketan bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio. Egintzak edo behar-uzteak izandakoan, herrialdeko edo nazioarteko legeriaren arabera delitu ez baziren, ezingo da inor kondenatu. Delitua egitean ezargarri den zigorra baino larriagorik ere ezingo zaio jarri.

#### **12. atala**

Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babes izateko eskubidea.

#### **13. atala**

1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa.
2. Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

#### **14. atala**

1. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea.
2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta irizpideen aurkako egintzak direla-eta ere.

#### **15. atala**

1. Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.
2. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere.

#### **16. atala**

1. Gizonek eta emakumeek, ezkontadinetik aurrera, ezkontzeko eta familia aratzeko eskubidea dute, arraza, herritartasun edo erlijioagatiko inolako mugarik gabe; eta, ezkontzari dagokionez, eskubide berberak dituzte bai ezkontuta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere.
2. Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.
3. Familia da gizartearen oinarri jatorra eta berezkoa, eta Estatuaren eta gizartearen babesa izateko eskubidea du.

#### **17. atala**

1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean.
2. Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabegoa kenduko.

#### **18. atala**

Pertsona orok pentsamendu-kontzientzi eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, ihardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

#### **19. atala**

Gizabanako guztiek dute iritzi-eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta iritziak mugarik gabe eta nolana hiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.

---

## 20. atala

1. Nornahik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea.
2. Inor ezingo da behartu elkarte bateko kide izatera.

## 21. atala

1. Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean nahiz libre aukeraturako ordezkarien bitartez.
2. Pertsona orok du berdintasunez norbere herrialdeko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.
3. Herriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oinarria; borondate hori aldian-aldian egingo diren benetako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeok bozketa orokor eta berdinez eta isilpeko boto bidez egingo dira, edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez.

## 22. atala

Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantza izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetuta izatekoa.

## 23. atala

1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lanbaldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa.
2. Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari berbera jasotzeko eskubidea.
3. Lanean ari denak bidezko lan-saria eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bai bere familia, giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa. Horretarako aski ez bada lansaria, gizarteko laguntzaren bidez osatuko da.
4. Pertsona orok du, norbere interesen alde egiteko, sindikatuak eratu eta sindikatuko kide izateko eskubidea.

## 24. atala

Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldiandian ordaindutako oporrak izatekoa.

## 25. atala

1. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, medikusorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzarora edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere.
2. Amek eta haurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.

## 26. atala

1. Pertsona orok du hezkuntza eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarrizko ikasketei dago-kienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goimailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.
2. Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen iharduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan.
3. Gurasoek lehenetsuneko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko.

## 27. atala

1. Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko.
2. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egille diren pertsona guztiek dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea.

## 28. atala

Pertsona guztiei dagokien eskubidea da, Aldarrikapen honetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen gizarte mailako eta nazioarteko ordena ezar dadin.

**29. atala**

1. Pertsona orok komunitatearekiko betebeharrak ere baditu, komunitatea baita bere nortasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra.
2. Pertsona orok, gainontzeko herritarren eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko eskakizunak betetzeko legez ezar daitezzen mugak baino ez ditu izango dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan.
3. Eskubide eta askatasun hauetaz ezingo da inor baliatu Nazio Batuen helburu eta irizpideen aurka.

**30. atala**

Aldarrikapen honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo ihardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik.

Iturria: <http://www.unidosporlosderechoshumanos.es/what-are-human-rights/universal-declaration-of-human-rights/>

